



2021/2022 denboraldia

15. ZIRKULARRA

OHOREZKO KADETEEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Ohorezko Kadeteen liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

1. MULTZOA	2. MULTZOA	3. MULTZOA
1 REAL UNION CLUB SAD	1 AIZKORRI GOIERRI F.T.	1 ARRASATE C.D.
2 HONDARRIBIA F.E	2 LAZKAO K.E.	2 URKI C.D.
3 SAN MARCIAL C.D.	3 EUSKALDUNA S.D.	3 ELGOIBAR C.D.
4 OIARTZUN K.E.	4 TOLOSA C.F.	4 ANAITASUNA C.D.
5 TOURING KE	5 BILLABONA K.E.	5 LAGUN ONAK C.D.
6 BETI ONA C.D.	6 HERNANI C.D.	6 EIBAR S.A.D.
7 LENGOKOAK K.E.	7 OSTADAR S.K.T.	7 UROLA K.E.
8 S.A.N.S.E.	8 ORDIZIA K.E.	8 AMAIKAK BAT K.E.
9 AÑORGA K.K.E	9 BEASAIN S.D.	9 ALOÑA MENDI K.E.
10 MARTUTENE K.E.	10 REAL SOCIEDAD S.A.D.	10 ARETXABALETA K.E. UDA
11 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE	11 VASCONIA C.D.	11 ZUMAIAKO F.T.
12 KOSTKAS KE	12 ANTIGUOKO K.E.	

2. LEHIAKETA SISTEMA

Ohorezko Kadeteen liga txapelketa **35 taldek** osatzen dute 3 multzotan banatuta, 12 taldeko 2 eta 11 taldeko 1. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (22 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A.Igoera Fasea:

Multzo bakoitzeko lau lehenak (4x3=12) 6 taldeko bi multzotan banatuta, bi itzulietara (10 jardunaldi) jokatuko dute fase hau.

Talde bakoitzeko lehenak finala jokatuko dute, partida bakarrera eta zelai neutralean, maila horretako txapelketa eta Kadeteen Euskal Ligara igotzeko postua zehazteko.



Talde bakoitzeko bigarrenak, eta horrela hurrenez hurren, lehenengo sailkatuen mendekotasunagatik beharrezkoa izango balitz, erregelamenduzko xedapenak ez betetzeagatik hutsik geratu den igoera plaza.

B. Mailari eusteko fasea:

Gainerako 23 taldeek mailari eusteko fasea jokatuko dute 5 taldeko multzo batean eta 6 taldeko hiru multzotan banatuta.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek, zozketa egin ondoren, finalerdia jokatuko dute 2022ko maiatzaren 15ean. Irabazleek 2022ko maiatzaren 22an jokatuko dute finala zelai neutralean. Finalerdia eta finala partida bakarrera jokatuko dira.

Ondorengo postu hautan okerren sailkatu diren 9 taldeak Gorengo Kadeteen Mailara jaitsiko dira:

Multzo bakoitzetik azken eta azken-aurren sailkatu diren taldeak automatikoki jaitsiko dira (8 plaza).

4.postuan (3. postuan talde bat gutxiago duten multzoan) sailkatu diren lau taldeek, zozketa egin ondoren, bi itzulietara jokatuko dituzte finalerdiak maiatzaren 15ean eta 22an. Irabazleek mailari eutsiko diote, eta 3-4 postuak maiatzaren 29an mailaz jaisteko falta den taldea jakiteko (plaza 1) sailkapen-ordena zehazteko.

MULTZOA	MULTZOA	MULTZOA	MULTZOA	
1	1	1	1	FINALERDIAK ETA FINALA MAILARI EUSTEKO FASEKO TXAPELDUNA ZEHAZTEKO
2	2	2	2	
3	3	3	3	FINALERDIAK bi itzulietara+ 3-4 POSTUAK MAILAZ JAISTEKO FALTA DEN POSTURAKO (1) SAILKAPEN-ORDENA ZEHAZTEKO
4	4	4	4	
5	5	5	5	AUTOMATIKOKI JAITSIKO DIRA (8)
6	6	6	6	

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 80 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.



4. JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

5.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

6.DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

7.XEDAPEN OROKORRA

"Koltxoi" mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) Kadeteen 1. Mailako talde bat igota.
- b) Ohorezko Kadeteetatik jaitsitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitsiera saihestuta.
- c) Eta horrela behin eta berriro.



8.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General